



BBVA FUNDAZIOA: IKERTZAILE ETA SORTZAILE KULTURALENTZAKO LEONARDO LAGUNTZAK (2024)

Epea: 2024.ko martxoaren 11

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Deialdian ezarritakoez gain, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Proposatutako proiektua UPV/EHUen egin behar bada, eskatzaileak funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izan beharko du UPV/EHUekin eskaera aurkeztu duenetik proiektua gauzatu arte.
- Karreraren erdialdean egotea. Ikertzaileen kasuan, doktorego ondoko etaparen eta irakasle titular edo baliokidearen mailaren artean egotea.

UPV/EHUen aurkeztu beharreko dokumentuak

Proiektua UPV/EHUen garatuko duen eskatzaileak posta elektronikoko bidez jakinarazi beharko du eskaera egin baino lehen igz.ikerketalaguntzak@ehu.eus helbidera. Gaiari "Leonardo bekak" adierazi beharko duzu eta honako dokumentazio hau sartu:

- Proiektuaren memoria (gehienez 5 orrialde DIN A4), honako hauek barne hartuta:
 - Eskatutako bekaren xede den proiektuaren deskribapena.
 - Lan-plana eta gauzatzeko egutegia.
- Guztizko aurrekontu gordin banakatua, kasu bakoitzean aplikatu beharreko zergak eta atxikipenak barne
- Parte hartzen duen talde osoa.

UPV/EHUtik kanpoko langileek parte hartzen badute, jatorrizko erakundearen baimena bidali beharko da

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUko ikertzaileek aurkeztutako eskaerak zehar **kostuen %18a** jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakian –horren bidez agintzen da UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garapen arautegia argitaratzeko– jasotakoa aplikatuz, irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkaritza legala: Inmaculada Arostegui Madariaga
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa

BBVA Fundazioarekiko harremana:

- E-maila: becas-leonardo@bbva.es
- [Deialdiko esteka](#)